




Aurkibidea

4

Aurkezpena

6

Jarduerak

17

Erabiltzaileak

21

Zerbitzuak

24

Komunikazioa

28

Balorazioa



Aurkezpena



Igartubeiti Baserri Museoa

Igartubeiti Baserri Museoa euskal gizartearen oinordetza kulturala gaur egungo ikuspegitik transmititzen duen kultura-gune aktibo gisa kokatzen da. Ondare berezia, benetakoa eta ezinbestekoa. Hainbat balio biltzen ditu, kulturalak, naturalak, historikoak, arkitektonikoak, etnografikoak eta paisaiari lotutakoak, bere berezitasun eta nortasunaren oinarri direnak. Gizarte-erlaketak jasangarria sustatzen duen espazioa ere bada, kultura-ondarearen ikuspegi hezitzaile eta sozial batetik.

Igartubeiti memoria da eta bizitza da: gure arbasoen ondarea eta etorkizunerako ikasbidea.

Museoaren jabetza Gipuzkoako Foru Aldundiarena da. Kultura, Lankidetzaz Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historiko Artistikoaren, Museoen eta Artxiboen Zerbitzuari atxikita dago.



Jarduerak



Datu orokorrak

Honakoak dira 2025ean egin ditugun jardueren buruzko datu orokorrak:

3

Aldi baterako erakusketa

31

Helduei zuzendutako tailerrak eta jardurak

9

Haurrentzako eta familientzako tailerrak

336

Bisita gidatu

Kultur programazioa

Aurten, urteko azken hiru hilabeteetan, Igartubeiti Baserri Museoaren kultur programazioan "Baserria. Egurra, harria, mitoa, orain" eta "Nagusia hil da. Erlauntzaren inguruko erritua" erakusketak izan dira nagusi. Apirileko asteburu batean, "Lorontziak:lorerik gabeko ontziak" erakusketa izan genuen ikusgai, eskualdeko artista baten eskutik.

Aldi baterako erakusketak



"BASERRIA. EGURRA, HARRIA, MITOA, ORAIN"

Erakusketa honek mendeetan zehar Euskal Herriko egoera ekonomiko eta sozialetara egokitzen eta eraldatzen jakin duen arkitektura gisa erakusten du baserria, euskal landa-paisaiaren irudi nagusi bihurtzeraino.

2025/10/08-2025/12/31



1547

Bisitari



"NAGUSIA HIL DA: ERLAUNTZAREN INGURUKO ERRITOA"

San Telmo Museoarekin, lankidetzan, Gordailuaren (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa) aholkularitzarekin sustatutako Galbahe bekaren emaitza. Miriam Montano de Juanek eta Telmo Sánchez Ugaldek garatutako sei hilabeteko ikerketa.

2025/10/10-2025/12/31



1234

Bisitari

Aldi baterako erakusketak

Erakusketa nagusiez gain, tamaina txikiko erakusketak ere izan dira ikusgai



“LORONTZIAK: LORERIK GABEKO ONTZIAK”

Oier Fernandez eskualdeko artistak asteburu batean zehar, **apirilak 4, 5 eta 6an** sortutako erakusketa. Ezkio-itsasoko eskolako ikasleek beraien lanak bertan ikusgai ipini zituzten eta baserria ezagutzen ez zuten gazte asko gerturatu ziren.



136

Bisitari

MusealiaK gunea



MUSEALIAK

Musealiak proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren museoetan garatu da eta museo bildumetako objektuen istorioak kontatzen ditu, haien funtsetara iristen direnetik erakusketa egiten den arte. Gorua eta ardatza; danbolina eta azeri-zepoa izan dira aurten ikusgai egon diren objektuak



Aldi baterako erakusketei lotutako ekintzak



“Baserria. Egurra, harria, mitoa, orain”.
Erakusketaren aurkezpena
komisarioarekin

Sagardo Asteko irekiera egunean hainbat medio eta politikari hurbilduko zirela arobetzatuz, Jon Arcaraz komisarioarekin bisita gidatua Asteazkena, urriak 8



“Nagusia hil da: erlauntzaren inguruko erritua”
Erakusketaren aurkezpena

Miriam Montano eta Telmo Sánchez artistak erakusketa aurkeztu zuten. Ostirala, urriak 10



“Lorontziak: lorerik gabeko ontziak”
Ezki-Itsasoko eskolako
ikasleekin tailerra

Ezki-itsasoko eskola aurrek erakusketa ikusi, beraien artelanak egin eta erakusketan jarri zituzten ikusgai. Ostirala, apirilak 4.



Lorontziak: lorerik gabeko ontziak”
Erakusketaren aurkezpena

Erakusketak aurkezpen berezia izan zuen Uxue Kerexetak abestu zuen eta lore pila ekarri zituzten partaideek Ostirala, apirilak 4.

Bestelako jarduerak



Jakintzen Hibridazioa

Lanbide tradizionalei eta horiek mundu garaikidean duten iraupenari buruzko hausnarketa- eta ikaskuntza-espazioak sortzea helburu duten 4 tailer eta solasaldi-dastaketa. POCTEFA Patrim 4.0 proiektuaren barne



Musika dolarean. "Itsaso bat eskuartean ikuskizuna

Sagel eta Oinkari dantza taldea. Sakabi, Gelatxo eta Elgeta trikitilarien figurak eta euren ibilbidea gogoratu eta goستن du ikuskizun honek, euren kantu eta piezetatik abiatuta eta gaurko musika moldeetara ekarrita.



Barrikotea

Famili giroko festa, sagardoa eta bertako produktuak dastatuz, kirikoketa eta trikitixaz lagundurik. Giro ederra izaten da.



Sagardo Astea

Baserriko prentsaketa zuzenean ikusteko urteko une bakarra. Programak kirikoketa erakustaldiak, bisita antzeztuak barne hartzen ditu, baita bisita bereziak ere.



Galbahe Beka

Bi erakundeen bilduma etnografikoei buruzko lehen ikerketa eta dibulgazio deialdia sustatzen du. Helburua ondare etnografikoari buruzko dibulgazio-proiektuak garatzen laguntzea da, ondare hori gizarteratzea sustatzeko



Zinema eta landa eremuko emakumeen zikloa

Landa eremuko gaietara beste ikuspuntu batetik hurbiltzeko aukera ematen digu eta ondorengo solasaldia ere hausnartzeko oso aberasgarria izaten da.



Bestelako jarduerak



Museoen Nazioarteko Eguna

"Museoen etorkizuna, etengabe eraldatzen diren komunitateetan" leloari jarraituz, "Arto irinarekin cookie-ak egin" familientzako tailerra eskaini dugu. Bide batez, errota eguna ere ospatu dugu.



Ondarearen Europako Jardunaldiak

"Iraganera leihoak, etorkizunerantz ateak" leloa abiapuntu hartuta aurten ondare arkitektonikoa jarri da erdigunean. "Iraganeko eraikuntzak etorkizuna sortzeko" famili tailerra egin dugu.



Bisita bereziak

Emakumeen egunerako baserrian izan duten garrantzia azpimarratuz bisita gidatua eskaini genuen. Aste Santuan eta udan ere antolatu ditugu dastaketarekin. Lenbur Fundazioarekin eta Urola Garaia Turismorekin elkarlanean bisita bereziak antolatu ditugu baita ere.



Eskola txikien festa

Familientzako sagar zuku tailerrak eskaini ditugu. Herriak, udalak eta bizilagunak eskertu dute gure parte-hartzea horrelako ekimen erraldoian, erronka bat zen herri osoarentzat eta dena primeran joan zen.

Hezkuntza proiektua

Gehienbat Gipuzkoako ikastetxeak etortzen dira baina geroz eta gehiego dira bizkaiatik animatzen direnak ere. Talde gehienak martxotik aurrera etortzen dira normalean. Gehien egiten den dinamika baserrira bisita eta gero tailer bat egitearena da, gehien eskatzen duten tailerra gailera tailerra eta sagar zukua egiteko tailerra dira. Azkeneko urteetan ikusi dugu geroz eta ikasle talde handiagoak datozelako 100 ikasletik gorakoak, honek behar bereziak eskatzen dizkigu.

50

Talde

1268

Ikasle

Ezkioko eskola

Igartubeitik Ezkio-Itsasoko herri eskolarekin lankidetzan “**Ogibideak , lehen eta orain**” **proiektua** jarri zuen martxan. Bertan baserria ardatz bezela hartuta lehen sektoreko lanbideak Ezkio-Itsason non egin diren eta non egiten diren ikusiko dugu. Urteetan zehar garatuko den proiektu honen amaieran Ezkio-Itsasoko baserrien eta hauetan egiten diren lanen mapa bat sortzea da helburua.



Baratza landu

Igartubeitiko baratza landu dute, artoa erein dute eta gainera eskolan lortutako haziak ere landatu ditzute. Garaiko barzakiak ere landatu dituzte.



Erakusketara bisita eta eskulana

Oier Fernandez artistaren erakusketa ikusi ondoren beraien artelana egin zuten eta hau erakusketan jarri zuten ikusgai.



Sagardo Astea

Urtero etortzen zen taldetxo bat sagardo asteen, aurten erabaki dute kostea dela eta bi urtetik behin etrotzea.

Hezkuntza ez arautua

Eskolaz kanpoko talde desberdinak etorri dira bisitan, urtero errepikatzen dutenak Euskaltegiak izaten dira, Gabriel Aresti Euskaltegitik eta Bakaikuko barnetegian euskara ikasten duten pertsonen taldeak, adibidez. Herri desberdinetako jubilatutako elkarteak ere etorri dira aurten.

Familia tailerrak



Kandelak eta tote-bag poltsak apaindu

Familek beraien kandelak sortu eta hauentzako euskarria egin zuten, baita ere tote bag poltsei bigarren bizitza eman hauek apainduz.



Amets harrapakariak

Baserritarrek mitologia erabiltzen zuten ulertzen ez zituzten fenomenoak azaltzeko edo oso baliotsua zena babesteko. Mitologiako kontakizunak ezagutu zituzten eta gaur egungo amets harrapakari bat sortu zuten.



Ehundegia

Emakumearen Nazioarteko egunean ehunak egiteko lan gogorra esperimentatzeko aukera izan zuten, oihal zatia ehungailuan egin eta tapiz txiki bat sortuz.



Euskal mitologiari buruzko topaketa

Aritza Bergarak Euskal Mitologia eta izaki magikoak aurkeztu zizkien familiei. Ondoren, mitologiako pertsonaiak eta eguzkiloreak sortu zituzten.



“Emozioak dantzan”

Naturako elementu bakoitzak zein emozio sentiarazten dizu? galderari erantzuten saiatu ziren parte hartzaileak. Oihane Vicente dantza mugimendu terapeutaren eskutik, dantza, natura eta emozioak erdigunean jartzen zituzten dinamikak burutuz



“Gabonetako koroa”

Material natural eta etxetik ekarritako berrerabiliekin familek gabonetarako koroa egin zuten.

Lankidetza sarea

Igartubeitik tradizioz zaindu izan ditu eragile sozial eta kulturalerikiko harremanak, bai lankidetza proiektuak garatzeko, bai baliabideak partekatzeko beste proiektu batzuk garatze aldera, betiere horiek museoari balioa ematen badiote eta helburuak betetzen laguntzen badute.



PATRIM 4.0

Europa mailako sare honek Pirinioen bi aldeetako ondare natural eta kulturalari balioa ematea du helburu, garapen jasagarriko ikuspegi bateratuen bidez. Jakintzen hibridazioa” ekimenen parte diren eta lanbide tradizionalei eta horiek mundu garaikidean duten iraupenari buruzko hausnarketa- eta ikaskuntza-espazioak sortzea helburu duten lau tailer eskeini ditugu.



SAGARDOA ROUTE

Aurten izan dugun atzerritar bisitarien gorakada hein handi batean lankidetza honi esker izan da. Ia astero Donostiatik baserriko dolarea bisitatzera etorri eta sagardotegi batean bazkaltzen dute ondoren.



SAN TELMO MUSEOA

Ondare etnografikoari buruzko dibulgazio-proiektuak garatzen laguntzeko, ondare hori gizarteratzea sustatu asmoz, Galbahe Bekaren lehen edizioa jarria dugu martxan aurten.



LENBUR FUNDAZIOA

Urtean zehar zenbait bisita gidatu berezi antolatu ditugu. Sagardo Astean, Legazpiko Fabrikara bisita, Mari Domingi eta Olentzero garaian, baserrietako gabonei buruzko bisita, baita industrializazioaren ingurukoa ere.



EUSKADIKO MUSEO ENOGASTRONOMIKOEN SAREA

Igartubeitirekin batera zortzi museo eta interpretazio zentrok osatzen dute sare hau eta bisitariari Euskadiko produktu gastronomiko ezagunenetako batzuen atzean ezkutatzen diren esentzia, tradizioak eta balioak helaraztea du helburu.



Erabiltzaileak





Bisitariak


Museora etorritako 8.121 bisitariak jardueraz, erakusketaz eta tailerrez gozatzeko aukera izan dute. Gipuzkoarrak izan dira gehien gerturatu direnak. Aipatzekoa da, lehen aldiz, atzerritar gehiago etorri direla penintsulakoak baino. Ohikoa bihurtzen ari da, uda garaitik kanpo turista internazionala etortzea.

8121

Bisitari



Adin tartekak




Sexua




4.146
EMAKUME



3.975
GIZON



Azken urteetako garapena



117

Talde

4227

Banako

Gogobetetze datuak

Bisitarien gogobetetze maila oso altua da; eskainitako arreta, jardueren formatoa eta bisiten iraupena oso ongi baloratzen dute. Bisitariak beti eskertzen dute jasotako zerbitzua, eta eskerrak ematen dituzte iruzkin positiboekin.

Google my bussines profilak 4,8 izar ditu batazbesteko:

4,8
★★★★★

 **June Llorente Arkotxa**
Local Guide · 12 reseñas · 3 fotos
★★★★★ Hace un mes

Egindako bisita gidatua aparta izanda da! Ha sido genial! El chico que nos ha hecho la visita guiada es super atento y cuenta las historias de manera muy interesante, con muchos detalles, merece mucho la pena pasar un rato agradable para poder aprender mas sobre nuestra cultura! Mila esker 😊😊



 **Yasmina Mosquera**
Local Guide · 345 reseñas · 152 fotos
★★★★★ Hace 6 meses

Me encanta haber disfrutado y viajado en el tiempo en este lugar, muchas cosas interesantes



Ekintzen ondoren Museotik bidaliko formularioen emaitzak. Batez-besteko nota 4,8:

Jakintzen hibridazio tailerreko parte hartzailea:
“Me encanto la actividad”

Ikasle taldeekin etorritakoa:
“Oso egokia iruditu zitzaigun”

Gertu Kulturako partaideak: “Muy buena atención y muy buena experiencia. Las chicas que nos atendieron muy amables, estuvimos muy agusto y nos gustó mucho”

Zerbitzuak



Zerbitzuak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimenarekin, baserriko espazioak uzten zaizkie pelikuletako ekoizleei, komunikabideei eta elkarteei bertan grabatzeko eta argazkiak ateratzeko. Baita beraien jarduerak edo bilerak bertan antolatzeko ere.



Urtarrilaren 30etik otsailaren 19ra, Paul Urkijo eta 50 pertsonen osatutako bere lantaldeak, fantasia eta errealitate historikoa uztartuz, sorginen ehiza betean girotutako **“Gaua” filmaren grabaketak** burutu ditu Igartubeiti Baserrian.

Zuzendari, arte-zuzendari, ekoizleekin eta Foru Aldundiko Kultura Sailarekin hainbat bilera burutu ditugu dena kudeatzeko.

Bestalde, bi pertsona izan dira grabaketak burutu baino lehen eta grabaketa egunetan ere Igartubeitiko bilduma zaintzen eta kontrolatzen.

Tierres laburmetraia ere grabatzen amaitu dute aurten.



Basque Culinary Center-en “Mantala Basque Gastronomy” ekimenak Hazi Fundazioaren lankidetzarekin, **“Gastro Gaztea” jarduera** antolatu zuen Igartubeiti Baserrian, irailaren 29an. Parte hartzaileek Igartubeiti baserria bisitatu zuten.

Museoa pertsona guztientzat

Gertu Kultura

Gertu Kutura atariak kultur eragileak eta erakunde sozialak harremanetan jarri ditu. Bertan gizarte erakundeek kultur eragileak egiten ditzuzten berri eta partehartzea sustatzen du.

Museoarentzako aukera bikaina izan da urteetan zehar lan egin duen elkarteekin harremanak sendotzeko eta talde berriak ezagutzeko aukera izan du.

Honekin bat, taldeekin lan egiteko formazio espezifikoa jaso ditugu, hala nola, "Museoak eta Alzheimer" buruzko formakuntza eta proiektuaren hasiera edota "Estigmatik gabeko kultura" formakuntza jaso dugu. Hauekin batera, bi proiektuei hasiera eman diegu: "Museoa eta Alzheimer" eta egoilarri egoitzetan "Gertu Zubiak ". Proiektu honek Igartubeiti baserriko bizimodua zahar egoitzetan ezagutzeko aukera eskaintzen du. Urtean zehar museoan eta egoilarri egoitzetan egin diren jarduera desberdinetan 11 taldeek eta 164 pertsonak partehartu dute.



gertu
kultura
inklusioko
atea

Informazio gehiago



Kalitatea

Urte osoan zehar, Igartubeitiko lantaldeak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzeko asmoz, formakuntza ezberdinetan parte hartu du. Bestetik, eraikinen mantentze-planak ondarearen zaintza egokia bermatzen du.

Formakuntzari dagokionez, aipatzekoa da **Kultura eta Landatartasun Foroan** izan garela aurreneko ere. Patrim 4.0 proiektuaren baitan antolatutako ekimenen diseinurako eta bestela ere Igartubeitik prestatzen dituen proiektuak pentsatu eta garatzeko baliagarri izan zaizkigu topaketa hauek.

“Itinerancias: Comunidad de aprendizaje y práctica” programan parte hartu genuen, La Ortiga Colectivak antolatutako aholkularitza programan, martxotik maiatzera bitarte. Patrim 4.0 sarearen baitan Jakintzen Hibridaziorako baliagarriak izan zitzaizkigun tutoretza hauek.

Prebentzio eta mantenimenduan, baserriko argiztapen obra, parkinetik baserrira doan bidea hobetu gorpildun aulkientzako, baserriko mandioko bidea eta parkineko baldosa batzuk egokitu dira. Beheko errepidean dagoen seinalea berritu.

Gordailuko teknikariak baserriko objektuei etiketak ipini eta interpretazio zentroko bitrinetako objektuak garbitu dituzte.



Komunikazioa



Igartubeiti Museoaren komunikazio-planak bat egiten du bere ildoestrategikoekin, eta komunikatzean erabiltzen diren edukiak, mezuak, kanalak, tonua eta estrategiak gidatzen ditu.

Ohiko ohiturak eta jakintzak egungo erronka sozialekin lotzen dituzten kontakizun berriak transmititzen ditugu eta anda-eremuko komunitate edo eragileen arteko lotura islatzen duen edukia sortzen dugu.

Webgunea



Gure webgunea igartubeitibaserria.eus da eta astero ez bada hamabost egunoro eguneratzen dugu. Weborria batez ere Museoan egiten diren jardueren berri emateko erabiltzen da, Agendan, zein Albiste sailean.

Orri nagusian, goian, nabarmendutako jarduerara lotura egiteko aukera eskaintzen da, irudi handiagoaren bitartez.

Hezkuntza atala eta Patrim 4.0 egitasmoak ere nabarmen ikusten dira orri nagusian.

[Bisitatu webgunea](#)

Weborriaren datuak

Bisitak: 25.534
Gehien bisitatutako atalak:
Zure bisita, agenda eta albisteak



Sare sozialak

Museoak hainbat sare sozialen bidez bideratzen ditu bere ahalegin komunikatibo digitalak, bakoitzerako berariaz sortutako edukia zabalduz. Antolatutako jardueren buruzko informazioa hedatzen da, baita landa ingurunearekin eta historiarekin lotutako edukia ere.

Mezua modu hurbilean eta bi norabideetan transmititu dugu, gaurkotasunarekin lotutako edukiekin. Gainera, komunikazio-formatu nagusi gisa ikus-entzunezkoen sorkuntzan eta erabileran esfortzu bat egin da, komunikazio-eredu berrien joerei jarraituz.



[Bisitatu gure sareak](#)

Instagram



Jarraitzaileak
2679



Hazkundera
457



Bisitak
3349



Interakzioak
1298

Facebook



Jarraitzaileak
1409



Hazkundera
15



Bisitak
1132



Interakzioak
99

Twitter



Jarraitzaileak
660

Youtube



Jarraitzaileak
110

Difusioa



Komunikabideak




Prentsa oharrek hedabide zabala duten komunikabideetara bidali dira, bai orokorrak bai tokikoak, ikusgarritasuna handitzeko.

Whatsappa

Estadistika datuak eduki ez arren, gero eta gehiago erabiltzen dugu. Batez ere familia tailerreko bazkideak diren familiekin.

Newsletterra



Newsletterra gure publikoarekin zuzenean kontaktatzeko kanala da. Honi esker gure jardueren, berri eman dezakegu. Orokorrean gure harpidedunek newsletterra irekitzen dute, batz bestea %17,62k eta gainera batz bestea 745 click ere eginez.



✳️Eskerrik asko Igartubeiti gure oroimenaren parte diren urratsez, begirada bitxiz eta uneez betetzeagatik.

✳️Gabonetan, urtean zehar baserrian piztu den berotasun eta

Hedabideak

Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideetan, tokikoetan gehienbat nolabaiteko inpaktua lortu da, eta hainbat jende eta komunikabiderengana iritsi gara. Nabarmentzekoa da aurten telebisitan gehiago azaldu garela eta irratietan gutxiago:

Hedabideetan inpaktua

EAEko, bertako eta estatuko hedabideetan inpaktu handia lortu da. Lauhileko honetan, proiektu ugari izan dira hurrengo hedabideetan oihartzuna izan dutenak:

Bertako komunikabideak

Bertako hedabide aldizkari eta egunkarian presentzia;

- Diario Vasco, Alto Urola
- Goierriko Hitza
- Urola Telebista
- Kulturklik
- Zu zeu

EAEko hedabideak

- Egunkariak (Diario Vasco, Naiz Gastroteka)
- Irratia (Onda Cero)
- TV (ETB1: Biba Zuek, Etb2, Estamos Rodando)

Estatuko eta nazioareko hedabideak

- Europa Press





Ezkio bidea z/g, 20709,
Gipuzkoa



+34 943 72 29 78



igartubeiti@gipuzkoa.eus



igartubeitibaserria.eus

